

INVISIBLE EXPRESS 2025

Zinema Ikusezina 2025ek pantailak ireki dizkio unibertsitateko sormenari.

Beste urte batez, zinemaren bidez, mundua imajinatzeko, zalantzan jartzeko eta eraldatzeko proposamena egin nahi dizuegu.

UPV/EHUko ikasleek gehien motibatzen dituzten ardatza aukeratu ahal izango dute honako lau ardatzen artean: **jasangarritasun integrala, genero berdintasuna, kulturartekotasuna eta giza eskubideak**. Baina lan guztiek izenburu bera izango dute: **"Ziurgabetasuna"**.

Bilboko 'Film Sozialak' Nazioarteko Zinema Ikusezinaren Jaialdiari egun eragina duten gaietako askok sorrarazten kezka eta, gure ustez, UPV/EHUko ikasleek horren inguruan ekarpen ugari dituzte egiteko.

Mundu asaldatu honetan, gazteek krisi sozial, ekonomiko, klimatiko edo belikoei aurre egiteko duten moduari buruz egiten dituzuen hausnarketei eta proposamen zinematografikoei aitortza egin nahi diegu.

Atzerakada garaiak bizi ditugu **lorpen sozialetan, sare sozialek elikatutako indibidualismoa eta nartzisismoa gero eta handiagoa dira, justiziaren, bakearen eta adierazpen askatasunaren aurrean indarkeria lehenesten duten gerra danborren hots handiegia entzuten** dugu... Genero berdintasun gabeziak bere horretan jarraitzen du, eta indarkeria matxista ez da eteten. Bere forma guztietan aniztasunarekiko errespetua ere falta da. Migrazioarekin lotutako begiradak ireki nahi ditugu, giza eskubide gisa, xenofobiaren eta gorroto diskurtsoen aurrean, eta gauza bera egin zaintzari dagokionez (oraindik ere gehienbat emakumeek hartzen dute beren gain), gizarte eredu alternatibo eta jasangarriaren oinarri gisa.

Etxebizitzaren prezioak eta independizatu ahal izateko gazteek dituzten zailtasun handiek ere kezka eragiten digute. Gai ugari jarri nahi ditugu pantailetan.

Egia da **"Ziurgabetasuna"** handia dela, baina ezkortasunean ez erortzera animatu nahi zaituztegu. Zinema entretenimendu edo negozio industria baino askoz gehiago izan daiteke: oso tresna eraldatzailea izan daiteke. Halaxe erakutsi dute historian zehar mundu hau leku hobe bihurtu nahi izan zuten emakume eta gizonek.

Orain zuen txanda da. Istorio on bat kontatzeko gai bazarete, enpatia sortuko duzue; publikoa hunkitzea lortzen baduzue, ziurgabetasun hori hausten eta **Ondasun Komun Globala** lortzeko itxaropen izpi bat sortzen lagunduko duzue (zertxobait bakarrik bada ere).

Aurrera! Zuen kezketatik abiatuta, atera onena eta eraiki zinema mundua.